

# Prest!



BERBETAN: **LARRAITZ ZUAZO ETA ANE ROTAETXE** BEGIRA PRODUKZIOAK EKOIZTETXEO KIDEAK

ERREPORTAJEA: **100 URTEREN ONDOREN**

BARKUA: **DEUSTUKO II. KILOMETRO BERTIKALA**

7-258-259-260-261



## Sustatzailea



## Babesleak



## Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu  
**Prest!**  
urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com  
94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu



Nerea Cubillo Urkizu - Itsaso Larramendi Elexgaray			<b>Iritzia</b>	<b>4</b>
Iñigo Martin			<b>Gureak kanpoan</b>	<b>5</b>
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> 100 URTEREN ONDOREN <i>1924ko urrian, Errege Dekretu baten bitartez deustuartasuna ezabatu nahi izan ziguten gure herria Bilbora anexionatuz. Aurten, 2024ko urrian, begirada atzera bota eta garai horiek oroitzen ditugu, 100 urteren ondoren izaera propioa edukitzen dugula aldarrikatuz. Noski, deustuarrok ez ginen anxio hori pairatzen bakarrak izan, gure lerrokide diren Begoñatarrak ere lege horren menpe geratu ziren.</i>			<b>6</b>
	Arangoitiko Ikastetxea			<b>Eskolak</b>
Cirilo Vallejo alkatearen laprastada (1924)			<b>Behin batean</b>	<b>12</b>
Luis Angel Gaintzak jaso du Udalaren saria adinekoen izenean			<b>Artikulua</b>	<b>14</b>
<b>b</b>	<b>berbetan</b> LARRAITZ ZUAZO ETA ANE ROTAETXErekin <i>“Goizero kantuz loratzen dira Xiberoako lurrak. Tradizioaren gotorleku eta sormenaren lurralde. Non denborak atsedean hartzen duen, eta libertateak arnas. Bortitz bezain eder, anitz bezain hertsiki...”, honela dio Loraldiaren enkargu gisa produzitu eta ZINEBIn Bertoko Begiradak sailean hautatua izan den proiektuaren sinopsiak.</i>			<b>16</b>
	Bilbok ez du hiribildu gehiago nahi bizkaian(1921)			<b>Irudiak berbetan</b>
<b>IRITZIA</b> Benetan prest gaude gure betiko ohiturak egokitzeko?		 <b>barkua bete herba</b>		<b>24</b>
<b>HISTORIA</b> 100 urte geroago beraien herri izaera plazara atera dute deustuarrek				
<b>JUANJORI AGURRA</b> Maiteren gutuna				
<b>KULTUR TXOTX</b> Jon Intxaurrega eta Ekain Alegre Gil				

# Prest!

**Argitaratzailea:**

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Katalin Gaztelu

**Erredakzioa:** Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrega

**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

**Argazkiak:** Ecuador Etxea

**Publizitatea:** Katalin Gaztelu

**Diseinua:** BO5T

**Maketazioa:** Laura Freijo Iglesia

**Inprimategia:** Antza

**Ale kopurua:** 2.800

**Lege Gordailua:** BI-571-01



**Nerea Cubillo Urkizu**  
Zergatik onartu ezarri dutena?

## *Itsasadarraren bestaldean*

Urriari ospatu berri dugun Deustuko anexoaren 100. urtemugaren ondotik, hilabete honetan Euskaldunako bataillaren 40. urtemuga ekarri nahiko nuke gogora.


Lau hamarkada igaro dira hain zuzen ere, itsasadarraren bestaldean aurkitzen zen Euskaldunako Ontziolako langileek beren lanpostuak defendatzeko borrokan murgildu zirenetik. 1983. urtean Espainiako Gobernuak lantegia itxeko asmoa adierazi zuen eta bost urte geroago itxiera gauzatu zen arren, bertako langileek beren lanpostuak defendatzeko egindako erresistentziak eta borrokak Bilboko zein Euskal Herriko memorian dirau.

Ontziolako 2.400 lanpostu defendatzeko mobilizazio eta protesta ugari izan ziren hilabete horietan, Deustuko zubia ere horien lekuko argia izan zen. Alabaina, istilurik larrienak zalantzarik gabe 1984ko azaroaren 23an gertatu ziren, polizia nazionala metrailetekin tiroka lantegian sartu zenean. Istilu horietan Pablo González ontziolako langilea bihotzekoak jota hil zen, poliziarengandik ihesi egiten saiatzen ari zenean.

Euskaldunako ontziolako langileen borrokak lantegiaren itxiera galarazi ez zuen arren, langile klasearen batasunerako eta erresistentziarako gaitasuna lau haizetara zabaldu zuen.



**Itsaso Larramendi Elexgaray**  
Hiriaz eta beste



## *Bizilagunari*

Etxeko leihotik ikusten duzun leiho horren barruan pertsona bat dago pijama soinean, infinitura begira. Burua pixka bat biratuta, azpiko balkoian, andre batek landareen hostoak astindu ditu eta euri tantee ziprztindu beheragokoaren baranda. Gorago, ezkerrean, argi bat piztu da eta segituan itzali, eta ez dizu astirik eman ikusteko gizonak bakarrik jarraitzen duen logelan, edo maitale narrastiren bat sartu zaion barrura. Derrepentean konturatu zara laugarrenekoaren katua zuri begira dagoela zu pijamadunari so ibili zaren bezain tinko.

Leihoak ditugu paisaia, parean, aurrez-aurre, eta elkarren bizitza irudikatzen dugu fatxadako zuloek ematen dizkiguten tarte mugatuetan. Leihoz eta balkoiz josita daudelako langile

auzo honetako etxeak, elkarrengandik hurbilegi agian gortinak ixtea nahiago dutenentzat. Baina ez al dizu irribarrea pizten, barazkiak mozten zaudela, bizilagunen elkarriketak patiotik entzuteak? Edo arropa esekitzen ari zarela, parekoa leihotik leihora agurtzeak? Eman diezagutela auzoek desordena, ustekabekoa, hurbil ditugunekiko kuriositatea pizteko aukera. Horrek egiten baitu auzoa eder, intimoa bistartzeko gai den distantzia labur eta lotsagabeak.





## Iñigo Martin

**Jatorria:** Deustu

**Bizitokia:** Tbilisi (Georgia)

**Lanbidea:** Futbol jokalaria



### Zerk eraman zintuen Georgiara?

Futbolak eraman ninduen Georgiara. Denbora neraman Espainiako futboletik alde egin eta atzerrian jolasteko nahiarekin. Pasadan udan aukera bat izan nuen baina ezin izan genuen egin eta horrek gogoak piztu zizkidan. Georgiara joateko aukera eskaini zitzaidanean ez nuen birritan pentsatu.

### Dagoeneko hile batzuk daramatzazu bertan. Esango zenuke bertako bizimodura ohitu zarela?

Hemen daramadan bizimodua futbolera enfokaturik da eta nire burua horretara ohitzea besterik ez dut izan. Aldiro partidak ditugu, bidaiak, entrenamenduak... beraz nire egunerokotasunaren zati handi bat futbolak hartzen du.

### Deustualdea oso txikia da Tbilisi bezalako hiri batekin alderatuta. Zeintzuk dira somatu dituzun alde nabarmenenak?

Tbilisi oso handia da. Georgiako hiriburua izanda asko dira desberdintasunak. Jendea, ohiturak, paisaiak...

### Kulturen arteko desberdintasunak?

Asko nabaritzen da erlijioak duen garrantzia adibidez. Georgiarren gehiengoak kristautasun ortodoxoa praktikatzen du. Nire taldean asko dira edozein momentutan otoitz egiten dutenak. Partida erdian, hotelean gaude-nean...

### Bitxikeriaren bat?

Bizitza orokorrean Euskal Herrikoa baino askoz merkeagoa da. Heldu nintzenean kaleko txakurrek harritu ninduten. Harritu bainp, pena sentitu nuen. Ez dute jaberik baina ez daude abandonatuta, bertako gobernuak kontrolatzen ditu belarrian dituzten txipen bidez.

### Uda garaia pasa berri den hone-tan, nola daramazu familiarekin eta Deustuko lagunekin ez ego-tearena?

Zaila da. Familia eta lagunak urrun edukitzea eta hala sentitzea ez da erraza baina uste dut ondo ari naizela moldatzen. Hasieratik argi eduki dudana zerbait izanda eta da

gustoko dudana egiten ari naizela kontuan hartuta ez naiz inor kezatzeko. Hori bai, irrikitan nago gabonak heldu eta nire jendea ikusteko.

### Zer gomendatuko zenioke bertara bisitan edo geratzeko doan norbaiti?

Bertoko janaria probatzea, zentroa zein alde zaharra bisitatzea, auzo desberdinetatik ibiltzea eta hiriburutik kanpoko mendiko zonaldeetara joatea.

### Zer botatzen duzu gehien faltan?

Esan bezala familia eta lagunak. Aitak sukaldatzen zizkidan platerak, lagunekin planak egitea...

### Epe luzerako geratzeko asmorik duzu?

Futboleko oso zaila da horrelako gauzak jakitea, egun batetik bestera dena aldatu daiteke eta batek daki non amaitu dezakedan. Baina aukera badut, bai, gustura nago hemen eta asko daukat egiteko.



## 100 URTEREN ONDOREN

*1924ko urrian, Errege Dekretu baten bitartez deustuartasuna ezabatu nahi izan ziguten gure herria Bilbora anexionatuz. Aurten, 2024ko urrian, begirada atzera bota eta garai horiek oroitzen ditugu, 100 urteren ondoren izaera propioa edukitzen dugula aldarrikatuz. Noski, deustuarrok ez ginen anexio hori pairatzen bakarrak izan, gure lerrokide diren Begoñatarrak ere lege horren menpe geratu ziren.*

**Testuak:** Imanol Orokieta (Deustu) eta Lur Mallea (Begoña)

Eta hala, hariekin batera egin dugu 2024ko urriaren 20an oroitzapen ariketa hau. Bakoi-tza bere herritik habiatu da Salve ingurura, bi udalerrriak bereizten zituen mugara. Batzuk Etxebarriako tximiniatik atera dira, geu Done Petri enparantzatik, biak ala biak jai-giroan. Musikariak, dantzariak, erraldoiak, orotariko eragile, talde, norbanako eta abar abiatu gara Begoñarantz, noski, udal korporazioekin batera, alkate eta aguazilekin. Jada bertan geundela eta alkateek bi aldeetako dantzarien aureskua jaso ondoren, teila bana jaurti dute itsasadarre-ra, garai batean egiten zen bezala bakoitzaren lurra bertara heltzen zirela adieraziz.

Ez dugu, ordea, mugarik ezarri nahi izan, herri izaera propioa edukitzen jarraitzen dugula aldarrikatu baizik, Begoñatarrekin adiskidetasuna adieraziz, eurekin partekatzen baitugu bai historia eta baita bereizten baina lotzen gaituzten erreka urak ere. Jai-giroan oinarritu dugu oroitzapenerako egun hau, baina horrek ez du esan nahi honen atzean borroka bat ez dagoenik, inork ez dezala esan orain hemen ez gaudenik, norbanako nahi gaituzte baina herri gara oraindik.



## Herri biren emozioa

Gure aitite begoñarra zen. Begoñan jai eta hazia. Mahatsorri peto-petoa. Harrotasun handiz hitz egiten zuen Begoñari buruz aukera zuen aldiro. Begoñako bazterretan egindako bihurrikeriak zirela edota sindikatuko gorabeherak zirela, beti zuen Begoñako konturen bat ahotan. Ze emozio sentitzen zuen Begoña gogoan, begiak handi-handi pizteraino.

Bera arduratu zen alabei eta ilobei Begoñako berri emateaz. Trasmisio lana egiteaz. Ondotxo zekien historia ondorengoei zabaldu ezean ahazturara bideratuko zela. Herri baten desagerpenera. Ondotxo zekien ahoz zein idatziz historia bizi mantendu beharra zegoela. Zorionez, asko izan dira Mahatserrian zein Deustualdean memoriaren lanke-tan jardun direnak, katea eten ez dadin. Duela 100 urte, hemen, Begoña eta Deustu izeneko bi herri egon zirela gogoraraziz.







Eta ez da kasualitatea, ez, egun Deustun, Arangoitin, Santutxun, Uribarrin edota Otxarkoagan mantentzen den nortasun bereizgarria, herri sentipena. Azken hamarkadetako herri mugimendu, borroka eta adierazpenak horren seinale dira. Izan zirelako baikara.

Eta iritsi gara mendeurrenera. Bilbok Deustu eta Begoña bere egin zituenetik 100 urte pasa diren honetara. Anexio hura... Anexio hura ez dugu ahaztu eta anexio hura gogoratzea erabaki dugu. Gure arbasoek lotsaz eta amorruz bizi izan zuten ezintasunari buelta ematea. Herri bezala ospatuz zer

izan ginen eta zer garen. Alai. Harro. Emozioz beterik bi herrien arteko mugan, marra-  
ren defentsan.

Horrela jakin dute ume eta gazte askok Deustuko eta Begoñako errepublikaren berri. Ziurrenik batek baino gehiagok lehen aldi entzungo zuen horren berri. Bada, baliatu dezagun momentua. Egin dezagun memoria. Erronka ez da makala. Eguneroko bizimodu zoroan 100 urtetik gorako historiaren transmisioari eustea. Baina ez tematu, ezagutzen dugun zeregina da. Segi dezagun lanean. Jarrai dezagun herria egiten.





Argazki galeria







# “FAMILIA LAGUNA” PROGRAMA MARTXAN DAGO ARANGOITI IKASTETXEAN

*Familia Laguna programa, Elkarrekin Kooperatiba Txikiak 2014an sortutakoa, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan familia migratuei harrera eta akonpainamendua eskaintzen die, tokiko familien laguntzarekin. Ekimen honek kulturartekotasuna sustatzen du eskolan, elkar-ezagutza eta familien arteko kohesioa bultzatuz.*

**Testua eta argazkiak:** Arangoitiko Ikastetxea

Eskolara eta auzora iritsi berri diren familia migratuei gizarte eta hezkuntza akonpainamendua eskaintzen dien programa martxan dago Arangoiti Ikastetxean. Familia Laguna programa Elkarrekin Kooperatiba Txikiaren eskutik sortu zen 2014. urtean.

Gipuzkoan 10 urteko ibilbidea duen programa hau, joan den ikasturtean hiru lurraldeetara zabaltzeko pausoa eman zen. Gaur egun, Euskal Autonomía Erkidegoko 23 ikastetxeek parte hartzen dute programan, Eusko Jaurlaritzako

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntzarekin.

Familia Laguna, Haur eta Lehen hezkuntzako eskoletan irakasleekin, ikasleekin eta familiekin kulturartekotasuna lantzen duen programa da. Programa honek harremanetan jartzen ditu eskolara iritsi berri diren familia migratuak eta tokiko familia boluntarioak. Horiek ikasturte bateko akonpainamendua eskaintzen dute, familiak ikastetxean egokitu daitezzen errazteko, bai eta euskararen murgiltzeko ere.






Sortzen diren familia-bikoteen bidez, programak elkar-ezagutza, sareak zabaltzea eta ikastetxeetako eta komunitateko familien arteko kohesioa ere lantzen ditu. Gainera, programa honek ekintza komunitarioaren ikuspegitik egiten du lan, hau da, aldi berean espazio bera partekatzen duten pertsona eta talde batzuek kolektibotasun-sentimendua garatzea bilatzen du, eta prozesu sozial horren bidez familiak beren eraldaketa sozialaren eragile aktibo bihurtzea du helburu.

Gipuzkoako Elkarrekin kooperatiba txikiaren programa honek, non batez beste 250 familiak parte hartzen duten ikasturte bakoitzean, oso emaitza onak ditu harrerari, familien parte-hartzearen sustapenari, euskarara hurbiltzeari eta eskolan jarrera arrazistak prebenitzeari dagokienez. Joan den ikasturtean hiru lurraldeetara zabaltzeko urratsa eman zen, Arabako ADSIS fundazioaren eta Bizkaiko Aldaika elkartearen bitartez. Bi elkarte hauek izango dira programa Araban eta Bizkaian zabaldu eta finkatzearen arduradunak, Haur eta Lehen hezkuntzako eskolei kulturarteko bizikidetzarako tresnak eskaintzeko helburuarekin.



Era berean, programak prestakuntza, sensibilizazioa eta aholkularitza lana ere egiten du, eskola-komunitatearen barruan kulturarteko ikuspuntua txertatzeko, bai eta ikuspegi hori balioesteko eta arrazakeriaren aurkako pedagogiatik abiatuta kulturen arteko bizikidetzara sustatzeko hainbat ekintza ere.





# CIRILO VALLEJO ALKATEAREN LAPRASTADA (1924)

*Cirilo Vallejo Deustuko azken-aurreko alkatea izan zen. Diktadura batek izendatu zuen kinka ezin larriagoan, anexioaren zemaia egia bihurtzekotan zegoenean. Alkate agintaldirik laburrena izan zen berea, bere lehenengo erabakia ezin okerragoa izan zelako.*



Udaletxearen aurrean, beheko lerroan hirugarrena ezkerretik, Jose Gordon, hauteskunde bidez izendatutako Deustuko azken alkatea.

**Testua:** Hektor Ortega

Miguel Primo de Rivera jeneralaren diktaduran (1923-1930), udalak ez zituzten hauteskondeen bidez osatzen. Izendatu egiten zituzten, errejimena-  
ren konfiantzako gizonen artean. Horrela heldu zen Deustuko alkatetzara Juan Jose Usparitxa 1923ko urrian, aurreko PREST!en ikusi genuen bezala, txapelokerren komandantearen aginduz, Jose Gordon kargutik kenduta. Eta horrela egin zuten alkate 1924ko martxoaren 21ean Cirilo Vallejo Rodriguez.

Vallejo Bilboko Merkataritza Eskolako zuzendaria eta katedratikoa zen eta hogeita hamar urte ziren Deustun bizi zela, horietatik gutxienez hogeitai Madariagako estratako landetxe batean. Ordenaren aldeko gizona, beraz, kinka estu hartan Deustuko Udalaren buru.

Alkate izendatu eta hiru egunetara, martxoaren 24an, bere lehenengo osoko bilkura deitu zuen Vallejok. Batzarraren arrazioa premiazkoa zen: bezperan Bilboko Udalak Begoña, Deustu eta Lutxanaren anexioa eskatzearen aldeko ebazpena onartu zuen, 1917ko ekinaldia berriro abiarazten, eta, bitartean, Madrileko Gobernuarekin negoziatzen ari zen anexioa lortzeko.

Kinka larria zen. Eta Vallejok bazekien. Deustuko osoko bilkura hasi eta berehala, berbetan hasi zitzaizen zinegotziei eta herritarrei: "Lehenengoz egin behar dizuet berba eta aitortuko dut, pena handiz, eta deitoratu ere egingo dut, esango dizuedan lehenengoak zuengan ni buru naizen udal honen kontrako haserrearen eragin lezakeela, baina gauzak dira diren bezalakoak eta ez nahiko genukeen bezalakoak".

Eta hortik aurrera, Bilboko Udalak 1911tik anexoak lortzeko egindako gestioen berri eman zuen eta ondorio latza atera zuen: “Seguru esan dezakegu anexoia eginda dagoela; ez zaigu gustatzen, baina anexoia eginda dago”. Horren aurrean Deustuk aukera bi zeuzkan: protestatzea, “baina horrela eginez gero ez dugu ezer lortuko”, edo “anexoia Bilboko Udalarekin adostea” eta bide horretatik Deusturen aldeko akordioak lortzea.

Vallejok bigarren bide horren alde egin nahi zuen eta horretarako mozioa aurkeztu zuen. Mamia hauxe zen: Deustuko Udala “anexoia onartuko du baldin eta anexoia Bilboko eta Deustuko udalen arteko akordio baten emaitza bada. Akordio horretan Deustuk anexoiarekin lortuko dituen abantailak bermatuko dira. Horrela ez bada, anexoia aurrerako gure protestarik irmoena agertuko dugu”.

Laureano Gutierrez eta Fernando Goxeaskoetxea zinegotziek alkatearen proposamenaren alde berba egin eta gero, Vallejok aitortu zuen bazekiela zer zetorkion: “Ikusten duzue, alkate gisa egiten dudan lehenengoak leku txarrean jarriko nau herritarren aurrean”. Udal kargudun guztiak, aho batez, alkatearen mozioaren alde agertu ziren. Lehenengoz, Deustuko Udalak anexoia onartu zuen, baldintza jakin batzuetan bazen ere. Lehenengoz... eta azkenengoz.

## Egun bi geroago, zuzenketa

Hara non, egun bi geroago, martxoaren 26an alegia, Deustuko Udalak ez ohiko osoko bilkura egin zuen. Orduko hartan, Marcos Orueta zinegotzi sindikoak hitz egin zuen lehenengo. Larrituta zegoen Vallejoren mozioa onartu izanagatik. Orduan egintzat jo zuten anexoia, baina egun bi geroago argi zegoen oraindik erabakia hartu barik zegoela. Eta, kinka hartan, “baliteke anexoia gauzatzeko arrazoi indartsuenetako bat izatea guk geuk onartutako mozioa”. Horregatik, bere kontzientziari erantzunez, atzera egin behar zuela esan zuen. Eta anexoia aurrerako mozioa aurkeztu zuen.

Cirilo Vallejok alkatearen jarlekua utzi eta, zinegotzien artean jarrita, Orueta mozioaren alde hitz egin zuen. Ukatu egin zuen egun bi lehenagoko mozioa “mehatxupean” onartu zutenik, herrian zabaldu zen bezala (eta Jesus Gaztañaga udal idazkariak geroago esan zuen bezala), baina onartu zuen txarto interpretatu zutela egoera eta egintzat jo zutela artean egin gabe zegoena.

Bozketa eginda, hiru zinegotzik baino ez zuten eman ezezkoa. Gainerako guztiak, alkatea artean, alde agertu ziren eta, beraz, mozioa onartu zuten. Deustuko Udalak bere betiko jarrerara itzuli zen. Eta apirilean, Vallejoren ordean Marcos Oruetak hartu zuen aginte makila. Bera izan zen Deustuko azken alkatea.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99





Testua: Matxintxu-Larrako euskaltegia



*Larrakok bizirik darrai! Inoiz baino ozenago esan dezakegu, duela 40 urte irakasle, euskaltzale eta ekintzaile batzuek izandako ametsak bizirik jarraitzen duela: San Inazio ere euskalduntzea.*

1984. urtea, diktadura osteko urte gogorak, baina baita ederrak ere, zentzu handi baten. Herria bizirik zegoen, gogotsu, kalera irteteko, ospatzeko, eta batez ere, aldarrikatzeko. Garai ilunak izan ziren horiek argia ikusten hasi ziren, eta horrekin batera, euskararen berpizkundea etorri zen. Gizarteak erabaki garbia hartu zuen: euskara berreskuratu nahi dugu, herriz herri, auzoz auzo, etxez etxe.

San Inazio ez zen atzean geratu, noski, eta bere ekarpena egin zion AEKren bitartez. Garai haiek nostalgiaz gogoratzen dituzte irakasle ohiek, alaitasunez. Kontatu digutenagatik, gela desplazatu ugari bilatu behar izan zituzten ikasle guztiak artatu ahal izateko, klaseak gainezka zeuden eta. Zelako irudi ederra, ezta?! San Inaziotarrak euskara gosez zeuden, galdutako zerbait berreskuratzeko egarritz. Klaseak gaueko 10ak arte ematen ziren, eta nola ez, afariek, jaiek, kontzertuek eta abarrek ere haien tokia zuten!

Harrezkero, urte asko pasa dira, 40 urte. Ikasle eta irakasle mordoak, bizipen eta anekdota anitz, aldaketa eta obra dezente...Baina oraindik ere auzoa euskalduntzen jarraitzen dugu. Beraz, San Inazio oraindik ere euskalduntzen dugula ospatzeko, hainbat ekitaldi prestatu ditugu azaroa hasierarako.

Hortxe egitaraua:

Azaroak 6, asteazkena: 19:00etan, Euskararen Etxean, La Basuk hip-hop tailerra emango du.

Azaroak 7, osteguna: Bilboko AEK-ko ikasleak Larrakora joango dira autobusez, ginkana, poteoa...

Azaroak 9, larunbata: 11:30ean ate irekiak, eta 12:30ean trikipotea auzotik!

**Jarrai dezagun San Inazio euskalduntzen!  
Hurbil zaitetzte gurekin batera ospatzera!**

# LUIS ANGEL GAINZAK JASO DU UDALAREN SARIA ADINEKOEN IZENEAN

Testua: Jone Gartzia



*'Bilbo, adinekoen lagun' saria jaso zuen urriaren 1ean txistulari deustuarrak Julia Manzanerarekin eta Miren Linazarekin batera Campos Eliseosen egindako ekitaldian. Kulturaren egindako lan altruista aitortu dio uriak.*

Urriaren 1an ospatu zuten 'Bilbo, adinekoen lagun' ekitaldiaren hamargarren edizioa, Adinekoen Nazioarteko Egunaren ospakizunen barruan. Urtero legez, Bilboko Udalak 60 urteko gorako hiru bilbotar saritu zituen beren "ibilbide altruista" azpimarratu eta "auzoen eta auzotarren bizikidetzeta eta bizi-kalitatea hobetzearekin duten konpromisoa aitortzeko".

Aurtengo edizioan Luis Angel Gaintza saritu dute, Julia Manzanerarekin eta Miren Linazarekin batera. Bilboko Euskal Kantuzaleen elkarteak proposatu zuen deustuartutako bilbotarraren izena sariketarako, txistulari, zuzendari eta irakasle gisa "gure kantua, dantza eta kultura hedatzen" egindako lanagatik. Sari banaketan ez zen kultur adierazpenik falta izan: Marta Urcelay bakarlarria, Taberna Ibiltaria musika taldea eta Etxebarria Aita-Seme trikitilariak arduratu ziren ospakizuna girotzeaz. Joseba Solozabal eta Agurtzane Bilbao kazetariak gidatu zuten gala eta Juan

Mari Aburto alkateak banatu zituen sariak. Orotara, 600 adineko pertsona baino gehiago bertaratu ziren euren eguna ospatzera.

## **Kultura dokumentatzen**

Txistularia, dantzaria, zuzendaria eta gizarte ekintzailea izateaz gain, Gaintza euskal kulturaren dokumentazioan aritzeagatik da ezaguna. Euskodok Euskal Dokumentu eta Bibliografia Ondarearen Zaintzarako elkarrearen zuzendaria da. Ia mende erdi darama euskal kulturarekin eta politikarekin lotutako paperezko dokumentazioa biltzen. Dokumentu iragankorrak jasotzen ditu batez ere, "ageritu bezala desagertzen diren dokumentuak, jendeak garrantzirik ematen ez dielako".

Berbaizun ohikoak dira bere bisitak kartelak, liburuxkak, eranskailuak, argitalpenak eta beste jasotzeko. Euskal Herri osoan zehar aritzen da horrela, gero hainbat dokumentazio zentro eta artxibo instituzionaletan katalogatu eta artxibatu dezaten.

2018ko urriaren 18an Jabi Zabala kazetariak elkarrizketa egin zion Argia aldizkarian eta 2012an PREST! aldizkariko elkarrizketa nagusian aritu zen bere ibilbideaz berbetan.







## Sortzeko aukera izatea pribilegio bat da”

### **Nolakoa izan da *XIBERDA KANTUZ LORATURIK. TXORIEKIN HIZKETAN* proiektua aurrera eramateko prozesua?**

Begira Produkcioetatik Loraldiarentzako enkargu ezberdinak egiten ditugu, eta pieza hau sortzeko aukera aurkeztu zigutenean, Luxon (Iparraldean) bost artista batu ziren sormen prozesuan. Iruñeko Gaiarre Antzokian prozesu horri buruzko ekitaldi bat aurkeztu zuten, eta guk artista horiekin egun horiek pasatzeko aukera izan genuen, 20 minutuko dokumental bat sortzeraino. Bi egun igaro genituen grabatzen, eta isilean entzuten genuen hori jasotzen. Dokumentalean, soinu eta Zuberoako paisaia dira elementu nagusiak; bertako jendeak lurrarekiko eta ohiturekiko duen harremanaz ikuspuntu bat eskaini nahi izan dugu. Sintetizatuz; sormen prozesu hori ikustera joan ginen, soinu eta paisaia aldetik Zuberoak berak eskaini ziguna jaso genuen eta horrekin dokumentala osatu dugu.

### **Artisten sormen prozesuaren egunerokotasunean sartzera erraza izan da?**

Maddi Oihenart, Ihitz Iriart, Beñat eta Julen Acheary eta Mixel Etxekopar izan ziren besteak beste proiektuko artistak. Hasieran ez zen erraza izan artistek euren denbora gutxi zutelako eta izutu egin

zirelako gure kamarak sartzetakoan baina azkenean ondo irten zen. Negoziazio puntu batera heldu ginen. Lanketa bat egin genuen behaketatik eta lasai. Errespetu handiz betiere.

### **Begira Produkcioak bezala badituzue proiektu gehiago?**

Bai. Alde batetik, Primeran plataformarentzat *Glaziarrek agurtzen* izena duen saio bat ekoizten ari gara. Aldaketa klimatikoaren ondorioz Pirinioetako glaziarren urtze prozesutik datorren sentsibilizazio edo kontzientziazio saio bat da. Primeran eta Mendi Filmen kolaborazio akordiotik irten zen lehenengo kapituluaren aurrerapen edo “previa” bat Mendi Filmen aurkeztearen ideia eta holaxe izango da. Abenduaren 13an 19:30etan BBK Aretoa aurkeztuko da *Glaziarrek agurtzen*. Bestetik, Itziar Zorita eta Amaia Nerekanen *Cara de bicicleta* labor- dokumentala produzitzen ari gara. Grabazioak egiten gabiltza beraz gehiegi kontatu gabe esan dezakegu emakumea eta bizikleta hartzen dituela bere baitan laburrak. La %100ean emakumez osatutako lantalde tekniko eta artistikoa osatu dugu.

Cannesen ere izan gara aurten *Dastattoo*, gastronomía eta tatuajeen inguruan aurten produzitu dugun saioarekin. Gastrono-

“Gurea, lokal eta euskaratik, mundu mailan zabaltzeko proiektuak planteatu daitezkeela argi dugu”



# berbetan

LARRAITZ ZUAZO ETA ANE ROTAETXErekin

## ▷ ▷ SAKONEAN

### Sortzaile zareten aldetik, zeintzuk dira zuen lanaren alde txarrak?

Behin-behineko bizimodua daukagu. Ez daukagu lanpostu finko batek eduki dezakeen aurreikuspen bat. Ez dakigu datorren udan lanez gainezka egongo garen edo bidaiatu ahal izango dugun. Ez daukagu ezedentziak edo horrelakorik eskatzeko aukerarik.

### Zein da zuen ametsetako proiektua?

Larraitz: Niretzat gaur egun esku artean daukaguna kontuan hartuta erronka handiena benetan Katixa Agirrearekin daukagun fikziozko serie hau produzitu ahal izatea da. Ideia honek produkziara salto egin ahal izatea, esku artean dugun hau errealtate bihurtzea alegia.

Ane: Ni beti nago “Late Night” feminista batekin buruan. Aspaldi proposatu genuen eta ez zen inor ausartu. Beti nago “late night” kañero eta feminista batekin buruan iruditzen zaidalako kafe antzoki bat gorarte betetzea humoretik eta zarata egitea aldarrikapenetik gure zeregina izan daitekeela.



mia eta tatuajearen inguruko saioa da, eta mundu mailan hedatzeko formatu interesgarria iruditzen zaigu. Nahiz eta tokiko eta euskarazko ekoiztetxea izan, gure lanak mundura zabaltzea dugu helburu. Lehen aldiz izan gara Cannesen MIPCOM telebista eta ikus-entzunezko formatuen merkatuan, eta kontaktuak egiteko aukera izan dugu. Euskarazkoa eta lokala den ekoiztetxea izanda ere, ez dizkiogu geure buruari ateak itxi nahi mundura begira eta gure lana kanpora esportatzeko momentuan gaudela uste dugu.

### Ba al duzue beste proiektu berezirik esku artean ?

Badaukagu beste proiektu bat ilusi handia egiten diguna eta hor bai, mundu berri batean sartuko gara. Katixa Agirrearen eta Harkaitz Kanoren gidoi originalekin fikziozko telesail bat garatzen ari gara, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso dugularik. Mundu berri batean sartzeko aukera izango da, eta gogoz gaude. Momentuz garapeneko fasean gaude.



## **Larraitz, zuk Doxa ekoiztetxearekin batera eta ZINEBIn ere ITOIZ taldearen inguruko dokumentala lantzen ibili zara. Nola doa hori?**

Begiraz haratago, Ainhoa Andraka eta Zuriñe Goikoetxearekin lanean eta Doxa ekoiztetxearekin batera, “ITOIZ UDAKO SESIOAK” izeneko film dokumentala estreinatuko dugu ZINEBIn. Azaroaren 11n, Zinebi First Film sail lehiakorraren barruan aurkeztuko da gure lana.

## **Udazken oparoa izaten ari zarete, beraz. Nola antolatzen zarete horrenbeste proiektuekin?**

Oso momentu emankor eta oparoan gaude baina gure leloetakoa bat beti proiektuak zaintza eta autozaintza batetik garatzea da. Pozik gaude esku artean proiektu polit eta interesgarriak ditugulako. Kontuan izan behar dugu sortzen eta euskaraz bizi garela eta sormenetik eta euskaraz bizitzeko aukera izateak pribilegiatu egiten gaituela.

Esan bezala hazkunde prozesu batean gaude eta gure apustua hori da baina ez edozein eta ez edozertarako. Produktora askotan egin dugu lan gurea eduki aurretik eta ikusi ahal izan dugu ikus entzunezko ekoiztetxe askotan nola planteatzen diren proiektuak. Bizi izan ditugun esperientziak kontutan

izanda, gure asmoa beste mota bateko zerbait egitea da. Gure atsedanak, gure eskubideak...enpresa moduan zaintzaz ari garenean horretaz ari gara. Edukiei dagokienez, filtro bat pasatzen dugu eta gu garen hortatik planteatzen ditugu proiektuak. Gurea, lokal eta euskaratik, mundu mailan zabaltzeko proiektuak planteatu daitezkeela argi dugu.

## **Jakin badakigu Berbaizuko langilea izan zinela zu, Ane. Nolako izan da ibilbidea gaurdaino?**

Larraitz eta biok 2015ean ezagutu genuen elkar. Bakoitzari bere aldetik produktora batetik deitu ziguten eta aste betez batera egin genuen lan. Gerora, bakoitzak norbere bidea egin zuen baina pandemiaren bueltan, elkarrekin zerbait egitea erabaki genuen. Larraitzek “Begira bideoak” ekoiztetxea zuen jada eta nik, “Ur handitan” telesaila zuzentzen nuen baina gure arteko sintonia ona aprobetxatzeko nahiak “Begira produkzioak” sortzera eraman gintuen. Duela pare bat urte elkartu ginen legalki eta 5 urte daramatzagu elkarrekin lanean.

**“Esan bezala hazkunde prozesu batean gaude eta gure apustua hori da baina ez edozein eta ez edozertarako”**





EUSKAL KULTURA

# Jon Gerediaga deustuar poetak Euskadi saria irabazi du

Harkaitz Canok irabazi du euskarazko haur eta gazteen saria eta David de las Heras Literatura Lanaren Ilustrazioagatik saritu dute. Jon Gerediagak Euskadi Literatura saria jaso du azken honetan, euskarazko kategorian “Zeru-lurren liburua” lanagatik. Naturaren behaketaren inguruko hausnarketa poetikoa da, gizakiak bere oinaze propioari aurre egiten diona. Apirileko PREST!eko alean Jon Gerediaga eta Kepa Dieguezari eskainitako erreportajea “Zeru-lurren liburua”ren eta bere lanaren inguruan aritzeko aukera izan genuen *Lo zorroan atsedean hartzen duten hitzak* erreportajea hain zuzen ere.

TABERNAK

# Deustuko Herriko tabernan berrikuntzak

Denbora luzez lanean ibili ondoren ateak ireki ditu Deustuko Herriko Tabernak. Irudia berritzu eta beste hamaika aldaketaren ostean bueltan da. Berrikuntzen artean, astelehenetik ostiralera, 09:30etatik 12:30etara ematen ari diren gosariak ditugu. Edariak, denetarikoa tostadak, zukuak, pintxoak eta gozoez gozatzeko aukera berria eskaini du. Horrez gain, ostiralero 21:00etatik 22:45etara afariak zerbitzatzen dira eta ziur ez dela azken sorpresa izango. Aurrerantzean beste hamaika ekimen eta sorpresa berri... Hurbildu Deustuko Herriko Tabernara!

LEHIAKETAK

# Hastear da Egin Ttap! Lehiaketaren bigarren edizioa


Azaroaren 22tik azaroaren 28ra egingo den online lehiaketa da Egin Ttap!-en bigarren edizioa, Kukulaisi Aisialdirako Topaguneak antolatua. Lehiaketaren formatuak haur eta helduak, familian zein lagunekin batera, 7 egun hauetako bakoitzean 7 galdera erantzutea du oinarri; betiere, ahalik eta azkarren. Galderak askotarikoak izango dira: kultura, natura, musika, geografia... Horretarako mugikor edota ordenagailua izatea beharrezkoa da, esan bezala, aisialdi digitaleko egitasmoa baita. Quizz dibertigarria da sortutakoa, eta helburua euskaraz ondo pasatzeko momentuko bat sortzea da. Tokian tokiko sailkapenarekin batera, txapeldun guztiak bidluko dituen final handia ospatuko da Durangon, abenduaren 6an. Laster zabalduko da izen emate epea, beraz... adi Kukulaisio sareetara!













KULTURA

# Pedro Zuberogoiak “DEUSTUALDEA (1800-1975). Elizatea osatu zuten auzoen historia garaikidea” liburua argitaratu berri du

Pedro Zuberogoiak “DEUSTUALDEA (1800-1975). Elizatea osatu zuten auzoen historia garaikidea” liburua argitaratu berri du Ediciones Beta argitaletxearekin. Pedro Berbaizu euskara elkarteko sustatzaileetako bat da eta egun, Ibarrekolanda BHIko zuzendaria da. Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia (Bilboko Udala, 2008), Aitor anaiagaz batera; Fidel Castro (Elkar, 2009); Bilbon mundua ikusi (askoren artean; Erroteta, 2010); Xabier Gereño (Eusko Jaurilaritza, 2013); Bilbon hara-hona (askoren artean; Bilboko Udala 2020); Non eta Bilbon (askoren artean; Bilboko Udala 2022) liburuen egilea da eta oraingoan, Bilbok Deustuko elizatea anexionatu zuenetik 100. urtemuga betetzen dela baliatuz, DEUSTUALDEA (1800-1975) argitaratu du.





**Irudia Cabras menditik, Lutxanako zubi eta itsasadarrarekin batera. Zonalde horretan zeuden zamalekuen jarduera ikus daiteke. 2006an argitaratutako "Deia"-k utzitako argazkia.**

Urtea: 1921

Txema Luzuriaga

## *Bilbok ez du hiribildu gehiago nahi Bizkaian*


Deustuko, Abandoko eta Begoñako elizateen kontura Bilbo hiribildua hedatzeko asmoak oso atzetik zetozen. Hala, 1499. urtean, Bilboren boterea mugatzeko asmoz horiek egindako presioari buruzko datuak daude jada. Gaztelako Kondestableak, Jaurerriaren presioak eraginda, Barakaldon, Lutxanako dorreen ondoan, hiribildu berri bat eraikitzea pentsatu zuen. Gertakari horren aurrean Bilbok bere eskubideak baliarazi behar izan zituen. On Juan Bizkaiko Jaunak emandako pribilegioaren arabera, debekatuta zegoen Bilbotik Areta, Barakaldo eta Zamudiora salmenta eta birsalmenta egitea, eta, gainera, ezin zen Bilbokoari kalte egingo zion hiribildurik sortu. Pribilegio hori bazegoela egiaztatu ondoren, Bilbokoari kalte egingo zioten hiribildu berriak sortzen ez jarraitzea erabaki zen. Aipatzen ari garen etsaitasun hori areagotu egin zen 1500. urtetik aurrera, urte horretan Bizkaiko Korrejidoreak, Cueto jaunak, Bilbok Deustu, Begoña eta Abandorekin zuen auzi batek huts egin baitzuen.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

**blb:** BILBOTANRON ALDIZKARIA  
**BLB KOMUNIKAZIO KOOP. ELK.**  
 Ramon y Cajal 42, behea  
 48014, Deustua  
 admnstrz.blb@gmail.com | 944471042

**YVES ROCHER**  
**FRANCE**

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
 Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
 H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

**ATXURI**  
**TABERNA**


Luzarra 1  
 Deustu

**946 75 40 17**

Iragar zaitez  
**Prest!**<sup>-en</sup>

tel. 94 447 10 42  
 bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Alonso Pertsianak**  
 Plaza Celestino M<sup>o</sup> del Arenal, 12  
 48015 Deustu-Bilbao  
 Tel.: 656 410 475  
 alonsoper@outlook.com



**Optica**  
*Avenida*

Agirre Lehendakaria, 147 Tfnoa:  
 SAN INAZIO **94 475 11 24**



**Urrunago zertarako?**  
 Deustuko Liburudenda  
 San Pedro Plaza 4

1924tik Deustun

**Tintorería**  
**La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu  
 94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu



**artez**  
 euskara zerbitzua

**Probatu herrizki.eus**

ANDROID APP Google play | Apple App Store

ERROZ JARRABAZIA GOBIERNO VASCO BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea  
 48014 Deustu  
 tel. 94 475 22 33  
 matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu**  
 aek ■ euskaltea

Matrikula zaitez! 

**Nailan**  
 Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g  
 48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
 nailanparquet@euskalnet.net

**RONDOKO**  
 HORTZ KLINIKA

*Iratxe Jimenez Bobadilla*  
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa  
 Ume eta helduak  
 Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
 Peridontzia eta protesi kengarriak  
 Ortodontzia

PADI  
 OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
 E.P.S. 425/97

**Bitxidenda**

**Sabin**  
 Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6  
 Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS**  
**KM**  
**CERRAMIENTOS**

**Deitu eta Ikusi!!**

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
 TEL. 94.447.70.32  
 E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com  
 www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
 elektrizitate eta margo-lanak  
 2daurrelan@gmail.com  
 669 42 76 23





**Ezagutzen al duzu GAU  
BELTZA?  
Hala ez bada, zer  
ospatzen duzu?**



**Ane  
Deustu**

Ezagutzen dut Gau Beltza baina ez dut inoiz ospatu. Data konkretu hau aitzakia moduan hartuz inoiz juergan irten gara baina ez ospakizun gisa.



**Aitor  
Erribera**

Ezagutzen dut. Lehen Halloween ospatzen nuen baina orain Txantxikurekin eta Erriberan Bizinahirekin, Gau Beltza ospatzen dugu.



**Jon  
Deustu**

Txikitari ez nekien oso ondo zer ospatzen genuen baina etxeetatik joaten ginen poz-pozik gozokiak eskatzera. Orain, Gau Beltza ospatzen dugu baina beste era batean nagusitu egin garelako.



**Leyre  
Deustu**

Ez dut Gau Beltza ezagutzen beraz ez dut inoiz ospatu. Halloween ere ez dut ospatzen egia esan.



**Itxasne  
Deustu**

Niretzako beti izan dira antzekoak Gau Beltza eta Halloween.



**Xabi  
Uribarri**

Gau Beltza ez dut ezagutzen eta ez dut inoiz ospatu.



# harkua bete herna

>> IRITZIA

## BENETAN PREST GAUDE GURE BETIKO OHITURAK EGOKITZEKO?

**Testua:** Itxaso Sainz

Ziur aski noiz edo noiz nonbait lekuz kanpo sentitu zarete edota nabaritu duzue talde baten barruan ez duzuela nahiko zenuketen bezala bat egiten, ezta? Azken batean, gizanabakook harremantzeko edota komunitate baten parte sentitzeko premia dugu. Dena den, zerk batzen gaitu? Zerk egiten gaitu euskaldun?

Jakin badakigu, XX. mende hasieran, nazionalismoak bete-betean jo zuela, baina ez bakarrik gurean, baita inguruko edota Europako herri anitzetan ere. Are gehiago, euskal nazioaren identitate eraikitze horretan, zeresan handia izan zuen dantzak; finean, komunitatea sinbolikoki irudikatzeo zein kohesioa bultzatzeko tresna eraginkorra da.

Hala eta guztiz ere, dantza baliatu zutenen asmoa harago zihoan, generoen araberako sailkapena txertatu nahi izan baitzuten. Horrek emakume eta gizonen arteko estereotipoak eta “dagozkien rolak” elikatzea ekarri zuen. Bereizketa horren bitartez, gizonak indarra ezaugarri duten dantzekin (ezpata dantza, makil dantza...) lotzen zituzten eta emakumeak, aldiz, goxotasuna isurtzen zutenekin (arku dantzak, zinta dantzak). Gainera, dantza prestigioetsuenak gizonzekoei zegozkien (aurrekua, adibidez).

Askok esango duzue: horiek bai aspaldiko kontuak! Bai... guztiz ados... aitzitik, ehun urte pasa dira erabaki baztertzaille horietatik, eta nola gaude orain? Tamalez, gaur egun dantzariok gureak eta bi pairatzen jarraitzen ditugu. Egia da aurrerapausoak eman ditugula, nolabait genero sailkapen horren mugak zeharkatzen baikabiltza. Alabaina, genero rolen pisua bizkarrean iltzatuta daramagu. Eta noski... Euskal Herriko Dantzari Egunaren moduko

ikuskitzetan emakumeak ikusiko ditugu “mutilen dantzetan” aritzen; baina horiek benetan ote dira “mutilenak”? Argi dago oraindik ere mutilen eta nesken dantzetan pentsatzen dugula.

Denbora luze daramagu gure dantzak antolatzen sailkapen artifizial horren menpe. Izan ere, sarritan kontrakoa esan arren, testigantzek erakutsi dute dantzetan garai batean ez zela bereizketarik egiten; esaterako, nahiko ohikoa zen bai emakumeak, bai gizonezkoak aurrekua dantzatzen ikustea. (Deustun eta San Inazio horren lekuko argiak gara). Beraz, zeren zain gaude? Etorrizuna egungo dantzarien esku dago. Tradizioa berregiteko unea iritsi zaigu. Tradizioaren “ustezko babesleek” adieraziko digute ohiturak ezin direla urratu, guregandik kanpo daudela eta ezin dugula haietan eragin. Baina ez al dira tradizioak bizirik mantentzen garaira egokitzen jakin izan ditugulako?

Oraindik asko dago egiteko, hori begi bistakoa da; eta bidea nahiko malkartsu eta gorabeheratsua da, inolako zalantzarik gabe. Hori bai, itzela da ikustea azken urteotan, gero eta euskal dantza talde gehiago genero markarik gabeko dantzen olatura igotzen, ezta? Ez dago aitzakiarik! Dantza gaitetzen aske izan arte!



 **DEUSTU Kendu ziguten herria**

“DEUSTU Kendu ziguten herria”, Txema Luzuriaga eta Hektor Ortegarén liburua, salgai honako puntu hauetan:

Deustuko Liburudenda

Tu Kiosko

Papeleria Guimera

Etxean Liburudenda

Arangoiti okindegia

Erribera Taberna



## 100 urte geroago beraien herri izaera plazara atera dute deustuarrek

**Testua:** Gora Deustu!

“100 urte geroago beraien herri izaera plazara atera dute deustuarrek Duela hilabete ugari abiatu zen arren, eta aurretik egindako lanari garrantzia kendu gabe, “Gora Deustu Herria” dinamikaren epizentroa 2024ko urriaren 26an zegoen zehaztua, Bilbok Deustu indarrez anexionatu zueneko 100. urteurrenetik gertu. Urriaren 26ak hilabeteetan zehar egindako auzolanaren erakusle izan nahi zuen, deustuarrok elkarrekin egun guztiko egitarau batez gozatzeko egun handia, eta zailtasunak zailtasun ez zuen hutsik egin.

Eguna ez zen nolana hasi, Deustuko KM Bertikalaren bigarren edizioa izan zen eguneko lehen hitzordua. Lehen-go urteko partaide kopurua gaindituta 10:00etatik aurrera Ugasko Bidetik euripean minuturo ateratzen joan ziren izen emandako 115 pertsonak; kilometro luzeko malda pikoa nork azkarrago egingo.

Parte hartzaile guztiek Berrizko gainera iritsi ondoren dutxa azkar bat hartu eta 13:00etan jada Done Petri plazan sari banaketarako elkartu zen jendea. Emakumezkoen kategorian Sara Gutierrezek aurreko urteko garaipen handia errepikatu zuen bere marka pertsonala 4 segundutan hobetuz (7:01) eta txapela eta Pare

Gaszte Talde Feministak babestutako saria jaso zituen Garoa Sarrionaindia eskubaloi jokariaren eskutik. Gizonezkoetan, berriz, Jon Ander Uriondo bilbotarra gailendu zen aurreko urtean Jon Napalek jarritako marka 4 segundutan ere hobetuz (5:31). Azken hau, ezin izan zuen aurreko urtekora iritsi baina, bigarren izatea lortu zuen eta Deustu Bizirik merkatarien elkarrekin emandako deustuar onenaren saria irabazi. Gaztetxoetan soilik 14 urte dituen Telmo Abia-k jarri zuen denborarik onena (6:43) jende guztia zur eta lur utziz. Eta bukatzeko, aurten berria izan den Beteranoen saria ere banatu zen. 55 urteko Gorka Elorrieta izan zen irabazle kronoa 7:32tan geldituta.

Sari banaketa bukatu eta berehala, hotz geratzeko aukerarik utzi gabe jendea dantzan jarri zuen Bihotza Alai Dantza Taldeak erromeriarekin. Esaerak dioen bezala “Dantzatzen duen herri bat ez delako inoiz hilko”. Euritan jarraitzen zuen arren, jendeak ez zuen Herri Bazkarira huts egin eta plazako teilapean kabitu ezinda egon ziren bazkarirako bonoa erositia zuten 350 deustuar inguruk. Bazkari bitartean “Gora Deustu” elkarteko kideek ekitaldi xumea egin zuten bertaratutakoei eskerrak eman eta Deustu auzolanean

Dramaturgia eta zuzendaritza  
**IÑIGO COBO**

Antzezleak  
**UNAI IZQUIERDO**  
**JOSU IRIARTE**  
**ITXASO GIL**  
**ITXASO QUINTANA**  
**MARKEL VÁZQUEZ**  
**DIEGO PÉREZ**

**P6**

esta tarde en  
**MENTXAKA**

**AZAROaren 09tik ABENDUaren 08ra**

[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)



eraikitzen jarraitzeko deia plazaratuz.

Azkenik, kontzertuen txanda izan zen. Oinutsik erromeriak ezohiko formatu batean, bazkalostea girotu zuen kontzertua bera bingo musikatu bihurtuta. Bazkaltiar guztiak mahaietatik altxa eta dantzatzen jarri zituzten. Jarraian, Detomeitoseko rockero zaharren (edo ez hain zaharren) txanda izan zen. Beraien ohiko zale fidelez gain plaza beteta mantentzea lortu zuten. Ez ziren gutxiago izan Enbata Loradeko gazteak, beraien doinu fresko eta rollo onarekin. Eta egunari amaiera emateko HMNDIK ETXERAK zoramenaren muina ekarri zuen munduan bakarra den show juergazalearekin.

Eguraldiak ez zuen deustuar askok gorritz markatuta zuten eguna jai giro eta alaitasunean igarotzea galarazi. Urriak 26 hau historiarako geratuko den eguna izan zen. Beste behin Deustu herri

bizia dela erakutsi zuen; herri nortasun indartsua eta komunitate aktiboa duen herria. 100 urte geroago Deustun herri bat bada. Gora Deustu Herria!"









Juanjo:

Zu ezagutu zintugula hogeitaka urteak, zilarrezko ezteiak, hortxe-hortxe.

Auzokoak ginen, zure hurrengoko atarikoak. euskaldunak Deustu ia erdaldu batean. Poztu ginen elkar ezagutzeaz. Ez zegoen gure artean betiko topikorik, badakizu: gipuzkoar eta bizkaitarren arteko txiste txar hoiek.

Jakin izan genuen lauzpabost lagun biltzen zinetela Deustuko ikastolako gela batean euskal kantutegi zaharrari hautsa astintzeko. Iruditu zitzaigun idea aproposa eta bildu gintzaizuen. Ez berehala baina ideia zabalduz joan zen ezagunen artean eta zure gain hartu zenuen gu koordinatzeko ardura. Gerora , Bidarten bildu ginen jubilatut berriak eta kantu-zaleak edo besterik gabe euskal giro batean, astean behin gutxienez, elkartzeko aukera izan nahi zutenak. Batzuk ez zuten iraun, beste batzuk urteren bat edo beste; dozenaerdi zure itzala bailiran segitu zuten.

Ez zenion irizten ez ahots ez belarri txarra inorenari (beintzat ez zenuen adierazten), denak balio zuen konbenturako...

Pertsona baikorrik baldin bazegoen, hori zeu zinen!

Auzuneko (Barka: herriko) Agate Deunaren kalez-kalekoan, Olentzerorenean, San Josetan, Ibarrekolandan, Arangoitin.... Lau lagun agertu eta guk:..."Juanjo, hobe dugu zurito bat hartu eta etxera joan, hemen ez dago zereginik". Eta zu, temati:" bilduko dira, aurrera egin dezagun!" Eta batzuk: "Hau desastrea! ez da batere ondo atara" eta zeu beti irrifartsu eta harro...

Juanjo: Nirea, zu zinen puzzle handi baten piezaxoa baino ez da. Besteei dagokie baita euren piezekin osatzea. Ea denon artean lortzen dugun zure erretratua egitea.

Maitasunez, zure laguna

Maite



## Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako  
frontoiaren atzean

Zatoz gure eskaintza  
berria probatzera!



Astelehena - Asteartea - Asteazkena  
09:30 - 13:00 | 18:00 - 22:00

Osteaguna - Ostirala  
09:30 - 13:00 | 18:00 - 01:00

Larunbata  
18:00 - 22:00

@deustukoherrikotaberna

Ramon y Cajal 29 - DEUSTU

ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



# kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



**JON INTXAURRAGA**

*Irakaslea*

## JOHN FORD, JOHN FORD, JOHN FORD

Titularra ez da agertu, eta bakantea tokatu zait. Horregatik, gaur izango da lehenengo zutabea, eta zinema klasikoaz hitz egingo dizuet (bai, zuri-beltzez egiten zen hori, geldoa ei dena etab.). Orson Wellesi behin galdetu zizkioten bere hiru zuzendari kutunak, eta berak erantzun: "John Ford, John Ford eta John Ford". Zer esango dizuet, arrazoia zeukan, John Ford onena baita.

John Ford westernarekin lotzen da (bakeroak etab), baina askoz harago doa. Gauza guztien gainetik, zinema egiten zuen poeta bat zen, lirismo handikoa. Aipatzekoa da *Gizon isilaren* musua euripean, ETK telebistan ikusi eta, hunkituta, Elioti igel artean *errepikarazi* zionekoa. Filmak sakonak ziren, geruzez eta argi-ilunez beteak, bere pertsonaiak bezalakoak: *Liberty Vallance akatu zuen gizonako* Tom Doniphon, edota *The Searcher*seko Ethan Edwards (John Wayne, zu zara nagusia!).

Dena dela, bat baino gehiago ez zen horretaz konturatu eta, pelikula militarrek eta patriotikoak egiten zituenez, fatxa zela zioten. Izan ere, fatxa batek salatzen ditu, McCarthisismoan, gainera, indioen exodoa (*Cheyenne Autumn*), arrazismoa (*Sergeant Rutledge*), meatzarien lan egoera (*How green was our valley*) edota etorkinena (*The Grapes of Wrath*).

Txotx honetan, mota askotako sagardoa eskaintzen dugunez, John Stenbeicken obra zoragarria gomendatzen dizuet (bai, Irantzu Varelak hortik hartuko zuen izena) eta horren harira Bruce Springsteenek eginiko *The Ghost of Tom Joad* kanta.

Datorren hilabetera arte!

## Bai esan ta ezin gero

*Doinua: Goizean altxatu eta*



**EKAIN ALEGRE GIL**

*Elorri bertso-eskolako kidea*

Bizitza erritmo azkar  
Honekin ipar ta hego  
Norabideak bilatzen  
Mapa galduetan ero;  
Hala ere besteentzat  
Maiz gara titiritero  
Bilakatuaz norbera  
Bere burua(re)n borrero;  
Agian azken orduko  
Eskaeraren bat edo  
Bete ezinezko zerbait  
"bai" esan ta ezin gero:  
Hobe egingo genuke  
Birritan pentsatuz gero

Zaila izaten da "ez" bat  
Eramatea ahora  
Besteen nahien menpean  
Egoten baita gustora;  
Nahiz ta ongi geratzea  
Den gaur eguneko moda  
Inertziari jarraituz  
Erraz galtzen da ganora;  
Gure hitz denak direnez  
Hil gaitzakeen polbora  
Zer onartu eta zer ez  
Ongi hautatu beharko da  
Guk erabaki dezagun  
Zertan igaro denbora

urriak 24 - azaroak 14



errigora.eus



Eman bultzada,  
indartu euskara

# Agerreko uzta euskarari puzka


## BILBO EUSKARAREN HIRIBURUA 1876-2024

## ERAKUSKETA IBILTARIA



### 📍 BILBOKO UDALTEGIETAN

- URRIA | 15-30 | BEGOÑA
- AZAROA | 4-14 | SAN INAZIO - IBARREKOLANDA
- AZAROA | 18-22 | ERREKALDE
- AZAROA | 26-5 | LA BOLSA
- ABENDUA | 15-30 | CASTAÑOS
- URTARRILA | 3-16 | ABANDO
- URTARRILA | 20-30 | OTXARKOAGA
- OTSAILA | 3-14 | BASURTO





# EUSKARARA HURBILTZEKO HARRERA IKASTAROA

LIMBA BASCA CURSURI PENTRU I MIGRANTI

CURSO DE EUSKARA PARA MIGRANTES

COURS D'EUSKARA POUR DES MIGRANTES

دورة في لغة ؤشكيري للأجانب



**EMAN IZENA! MATRICÚLATE!**

**LUNES Y MIÉRCOLES O MARTES Y JUEVES**

**ASTELEHEN ETA ASTEAZKENETAN EDO ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN**

**9:30-11:30 / 19:00-21:00**

Telefona: 613171908

Helbide elektronikoa: [berbaizuko@gmail.com](mailto:berbaizuko@gmail.com)

